

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**HONDARRIBIKO UDALA***Iragarkia*

Udalbatzak, 2021eko irailaren 2an egindako ez ohiko bilkuran, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.3 artikuluan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.5 artikuluan adierazitakoaren arabera, Hondarribiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakina (HAPO), bere eranskinekin batera, argitaratzea eta jendaurrean jartzea erabaki du.

Interesdunek, dokumentuak [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus) helbidean eta Hondarribiko Arma plaza 9an horretarako gaitutako bulegoan aztertu ahal izango dituzte, 2 hilabetez, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, «El Diario Vasco» eta «Berria» egunkarietan, udal-ediktuen taulan eta [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus) web-orrian, iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatuta, aipaturiko epearen barruan bidezko deritzaen iradokizun eta alternatibak aurkeztu ahal izango dituztelarik. Iradokizunak eta alternatibak aurkezteko tokia, Hiritarren Arreta Zerbitzua da eta Jabier ugarte 6ko behe solairuan kokaturik dago. Era berean, Udaleko erregistro telematikoaren bidez egin ahal izango dira.

Gainera, aipaturiko artikulua betez, Aurrerakina, Irun, Lezo, Pasaia eta Hendaiaiko udalerrri mugakideei bidaliko zaie, jakinarazten gaituzten egon daitezen eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentuaren eskaera aurkeztuko zaio Eusko Jaurlaritzako dagokion ingurumen-organoari, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta planaren aurrerapen-dokumentuarekin berarekin batera.

Hondarribia, 2021eko irailaren 3a.—Txomin Sagarzazu Ancisar, alkatea. (5836)

**AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA***Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en reunión extraordinaria celebrada el 2 de septiembre de 2021, y de conformidad con lo dispuesto en el art. 90.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 26.5 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística ha acordado publicar y someter a exposición pública el Documento Avance del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Hondarribia, junto con sus anejos.

Los interesados, podrán examinar los documentos en la dirección [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus) y en las dependencias habilitadas al efecto en Arma Plaza n.º 9 de Hondarribia, en el plazo de 2 meses, contado a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en los periódicos «El Diario Vasco» y «Berria», así como en el Tablón de Edictos municipal y en la página web [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus), durante el cual se podrán presentar cuantas sugerencias y alternativas se estimen procedentes. El lugar de presentación de las alternativas y sugerencias, es el Servicio de Atención Ciudadana, sito en Javier Ugarte 6, bajo, y por vía telemática en el registro electrónico del Ayuntamiento.

Además, en cumplimiento de los citados artículos, el Avance se remitirá a los municipios colindantes de Irun, Lezo, Pasaia y Hendaia para su conocimiento y se presentará la solicitud de documento de alcance de la evaluación ambiental estratégica al órgano ambiental del Gobierno Vasco correspondiente, junto con el documento inicial estratégico y el propio documento de avance del plan.

Hondarribia, a 3 de septiembre de 2021.—El alcalde, Txomin Sagarzazu Ancisar. (5836)